

1200 ZB.KO DEKRETUA

2021eko otsailaren 18an Gazteria, Kirola eta Hezkuntza ez arautua Batzordeak proposatu zuen “2021ean Oiartzungo udalerrian kirol ekintzak edo jarduera bereziak antolatzeko dirulaguntzak banatzeko oinarriak” onartzea, Oiartzungo Tokiko Gobernu Batzordeak 2021eko martxoaren 9an onartu zuena.

GAOn martxoaren 24an argitaratu eta hurrengo egunetik 2021eko ekainaren 30era bitartean ireki zen eskaerak aurkezteko epea.

Epe horretan, Oiartzungo Udalean sei eskaera aurkeztu ziren.

Eskaerak aztertuta, 2021eko irailaren 8an Gazteria, Kirola eta Hezkuntza ez arautuen Batzordearen bilkurak puntuazioak ontzat eman eta haren baitan, honako dirulaguntza ematearen aldeko diktamina eman du:

JARDUERA	ESKATZAILEA	Puntuak	100%	1. ORDAINKETA	2. ORDAINKETA
HERRIARTEKO TXAPELKETA	OIARTZUNGO OIARPE PILOTA KIROLO ELKARTEA	73	2.449,66 €	1.959,73 €	489,93 €
SELEKZIOEN ARTEKO JOKO ZUZENEN PARTIDAK	TXOST OIARTZUNGO PILOTA KIROLO KLUBA	68	1.500,00 €	1.200,00 €	300,00 €
PASAKA TXAPELKETA	TXOST OIARTZUNGO PILOTA KIROLO KLUBA	53	1.778,52 €	352,41 €	- €
OIARTZUNGO ZIRKO EGUNAK	OLGA CORROCHANO ARRIBAS	52	1.744,97 €	1.395,97 €	348,99 €
GAZTE AIZKOLARIEN II. XANISTEBAN SARIA	JON LARRAÑAGA ASTEASUINZARRA	52	1.744,97 €	1.395,97 €	348,99 €
			9.218,12 €	6.304,09 €	1.487,92 €

- Ezetsitako eskaerak:

JARDUERA	ANTOLATZAILEA	ARRAZOIA
SLAKHERRIA OIARTZUN	SLAKHERRIA SLACKLINE TALDEA	Oinarri-arau espezifikoaren 2. artikuluan ezarritakoaren arabera, dirulaguntza eskatu ahal izango dituzte, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokorren 2. artikuluan zehazten den moduan: egoitza edo ordezkaritza iraunkorra Oiartzunen duten edo jarduerak bertan egiten dituzten pertsona edo elkartee k. Slakherrria Slackline Taldeak Donostian du egoitza eta ez dute jarduerak iraunkorri egiten Oiartzunen.

Gai honi buruz egindako diktaminarekin adostasunean Toki-Jaurlararen Araudiak ematen dizkidan ahalmen egikaritzan, ondorengo ERABAKI DUT:

- Oiartzungo udalerrian kirol ekintzak edo jarduera bereziak antolatzeko eskaerei dirulaguntzaren %80a orain egitea eta gainerako %20a ekintza bukatu denetik hiru hilabeteko epean justifikatu ondoren, beti ere, hurrengo urteko urtarrilaren 31a baino lehen:

JARDUERA	ESKATZAILEA	Puntuak	100%	1. ORDAINKETA	2. ORDAINKETA
HERRIARTEKO TXAPELKETA	OIARTZUNGO OIARPE PILOTA KIROI ELKARTEA	73	2.449,66 €	1.959,73 €	489,93 €
SELEKZIOEN ARTEKO JOKO ZUZENKO PARTIDAK	TXOST OIARTZUNGO PILOTA KIROI KLUBA	68	1.500,00 €	1.200,00 €	300,00 €
PASAKA TXAPELKETA	TXOST OIARTZUNGO PILOTA KIROI KLUBA	53	1.778,52 €	352,41 €	- €
OIARTZUNGO ZIRKO EG UNAK	OLGA CORROCHANO ARRIBAS	52	1.744,97 €	1.395,97 €	348,99 €
GAZTE AIZKOLARIEN II. XANISTEBAN SARIA	JON LARRAÑAGA ASTEASUINZARRA	52	1.744,97 €	1.395,97 €	348,99 €
			9.218,12 €	6.304,09 €	1.487,92 €

Oiartzungo Txost Pilota Kirol Klubaren kasuan, Pasaka Txapelketa antolatu du eta kirol ekitaldiaren justifikazioa aurkeztu du. Guztira, 352,41 euro justifikatu ditu, eta ez da iristen balorazio irizpideen arabera dagozkien 1.778,52 eurora. Beraz, **ordainketa bakarrean 352,41 euro ordainduko dira.**

- Dirulaguntza hauen ordainketa, guztira 7.792,01 euro, Oiartzungo Udalaren 2021 urteko aurrekontuko 1 1102.481.341.00.03 2021 (A/227-2021) diru atalaren kargura, eta “Ez-ohiko Kirol Jardueretan dirulaguntza” kontu sailaren kontura finatziatuko da.

Jexux Leonet Elizegi Alkate-Udalburu Jna.k agintzen eta sinatzen du, Oiartzunen, sinaduraren egunean.